

## **BILBOKO DOKUMENTALEN ETA FILM LABURREN NAZIOARTEKO JAIALDIAK – ZINEBIK BERE 62. EDIZIOA IREKIKO DU AZAROAREN 13AN, OSTIRALA, ARRIAGA ANTZOKIAN**

- Aurtengo ZINEBIko sail ezberdinetan 36 herrialdetako 121 film aurkeztuko dira guztira: 89 film labur, 5 film ertain eta 27 film luze.
- Sekzio Ofizialean – Nazioarteko Film Laburren Lehiaketan 60 filmek hartuko dute parte, Jaialdiko Sari Nagusia eta fikzio, animazio eta dokumental onenaren Mikeldi Sariak, besteak beste, lortzeko lehiatuko direnak.
- ZINEBIk Ohorezko Mikeldi sariak Jean-Pierre eta Luc Dardenne belgikarrei eta Ana Murugarren eta María Eugenia Salaverri euskaldunei emango dizkie.
- Zirkuituko opera prima iradokigarrienei eta ausartenei eskainita dagoen eta 12.000 euroko saria duen ZINEBI FIRST FILM (ZIFF) nazioarteko lehiaketaren barruan 9 film luze aukeratu dira, guztiak ere Estatu mailako estreinaldiak.
- Lehiaketatik kanpoko “Beautiful Docs –Munduko Dokumentalen Panorama” sekzioak, 7 herrialdetako azken garaiko 9 ekoizpen ikusteko aukera emango digu. Horietatik 7 ez dira Estatuan erakutsi.
- ZINEBIren 62. edizioa hibridoa izango da, hau da, filmak zine-aretoetan erakusteaz gain, zenbait proiektzio eta jarduera online egingo dira.

*(Bilbon, 2020ko urriaren 21ean).*- Bilboko Udalak antolatutako [Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia - ZINEBI 62](#), datorren ostiralean, azaroak 13, hasiko da Arriaga Antzokian, eta hilaren 20an amaituko da. 62. edizio honetako programazioa gaur goizean aurkeztu da prentsaurrekoan,- Bilboko Udaleko Kultura eta Gobernantzako zinegotzi **Gonzalo Olabarriaren**, Kultura eta Hizkuntza Politikarako kontseilari eta Eusko Jaurlaritzako bozeramaile **Bingen Zupiriaren** eta ZINEBIko zuzendari **Vanesa Fernándezen** parte-hartzearekin.

ZINEBI 62an 36 herrialdetako 121 film aurkeztuko dira guztira; 89 film labur, 5 film ertain eta 27 film luze. Jaialdia lau sekzio nagusik osatzen dute. Lehenengoa, Nazioarteko Lehiaketaren sekzio ofiziala, zuzendari berrien lanari eskainita dago eta bi lehiaketatan banatuta dago: Film Laburren Nazioarteko Lehiaketa eta ZIFF - Zinebi First Film Nazioarteko Lehiaketa, zeina, izenak argi adierazten duenez, zuzendari berrien lehendabiziko lanari eskainitako sekzioa baita; Beautiful Docs, dokumentalaren nazioarteko panoraman gertatzen ari dena islatzeko sekzio ez-lehiakorra; eta Bertoko Begiradak - Miradas Desde Euskadi sorta, Euskal Herriko ikus-entzunezko industriako

ekoizle, zuzendari, teknikari eta profesionalei eskainitako sekzioa. lehiaketatik kanpo Euskadin ekoiztako film labur eta film luze dokumentalez osatutakoa. **Jaialdian aurkeztuko diren filmen %50 baino gehiago emakumeek zuzentzen dituzte eta programazioaren %50 baino gehiago Estatuko estreinaldiak dira.**

### **OHOREZKO MIKELDI SARIA**

2020an, ZINEBIk Ohorezko Mikeldi sarien bitartez goraiatu egin nahi du nazioarteko zine garaikidean diharduten emakume eta gizon garrantzitsuen ibilbide eta dimentsio artistikoa. Aurten, film laburretatik eta dokumentaletik abiatu diren bi zinemagile handiri emango zaie garaikurra. Batetik, Jean-Pierre eta Luc Dardenne belgikarrei emango zaie saria, zeinak mundu osoko kritikaren eta ikusleen gorazarrea jaso baitute beren fikziozko lanengatik. Canneseko Jaialdian Urrezko Palma bi lortu dituzten zinemagile apur horietakoak dira, Francis Ford Coppola, Ken Loach, Bille August, Shohei Inamura eta Michael Hanekerekin batera. Hala, Estatu mailako estreinaldien artean, Dardenne anaien lehendabiziko film luze dokumentaletako baten bertsio berria eskainiko da **azaroaren 14an**, «Le chant du rossignol» (1977).

Bestetik, 80ko eta 90eko hamarkadetatik Bizkaiko zinearen aitzindari izan diren bi emakumeren lana ere aitortuko du ZINEBIk aurtengo edizioan: Ana Murugarren zuzendari, gidoigile eta muntatzailearen lana batetik, eta Maria Eugenia Salaverri idazle, gidoigile eta ekoizlearena bestetik, emakumeen presentzia tokiko ekoizpenetan bigarren mailako paperetara mugatzen zen garai batean.

**Murugarren** arduratu zen laurogeiko hamarkada bukaerako euskal zinearen izenburu garrantzitsuenak muntatzeaz, besteak beste honakoak: «Tu novia está loca» (1988), Enrique Urbizuk zuzendutako lehendabiziko film luzea; edo Pablo Bergerren «Mamá» (1988). «Todo por la pasta» filmean (1991) jarraitu zuen Urbizurekin kolaboratzen, eta haren zuzendaritza-laguntzaile izan zen urte haietan; Joaquín Trincadoren «Sálvate si puedes» ere muntatu zuen (1991). Zuzendaritza lanetarako jauzia eginda, dokumental generora hurbildu zen: «Esta no es la vida privada de Javier Krahe» (2005). Baita fikzio generora ere: «Tres mentiras» (2014) edo «La higuera de los bastardos» (2017). Telebistako lanetara ere bai, honako fikziozko lan hauek zuzenduz: «La dama guerrera» (2012) eta Mario Onaindiaren bizitzari buruzko «El precio de la libertad» (2018), Quim Gutiérrezekin.

**Salaverrik**, zenbait komunikabidetan zutabegile aritzeaz gain, ekoizle eta gidoigile lanen bidez osatu du ibilbide zinematografikoa, honako lan hauetan kolaboratuta: Javier Rebollo zuzendariaren «Calor... y celos» (1996); «Marujas asesinas» (2001), «Locos por el sexo» (2006) eta «Txarriboda» (Alvar Gordejuelarekin, 2015). Gainera, «El extraño anfitrión» (2012) eta «Alaba zintzoa» (2013) filmen ekoizle exekutiboa izan da. Idazle gisa, kontakizun bildumak argitaratu ditu («Un tango para tres hermanas», 199; edo «Por qué te ríes?» , 2004), baita poema liburuak ere («Retrato de un pájaro», 1978).

### **NAZIOARTEKO LEIHAKETA**

**ZINEBIren 62. edizioan 101 herrialdetatik ekarritako 3.525 film labur aurkeztu dira; horietatik, Hautaketa Batzordeak 30 herrialdetako 60 aukeratu ditu Sail Ofizialean - Nazioarteko Lehiaketan parte hartzeko. Lan horietatik berrogeita hemeretzi estatu mailako estreinaldiak izango dira. Horietatik bi Gijón/Xixóngo Nazioarteko Zine Jaialdiaren 58. Edizioarekin batera estreinatuko dira: **A Cambio De Tu Vida / In Spite Of Ourselves**, Olatz Ovejero, Clara López, Aurora Báez eta Sebastián Ramírezen dokumentala; eta **Zerua Blu**, Lur Olaizolaren dokumentala.**

Titulu horiek, besteak beste, **JAIALDIKO SARI NAGUSIA**, 7.000 eurokoa, eta fikzio, animazio eta dokumental onenaren **MIKELDIK**, (5.000 eurokoak) lortzeko leihatuko dira: fikzioa (21 titulu), dokumentala (20 titulu) eta animazioa (19 titulu). Lehiaketarako aukeratu diren lanen artean 7 euskal zinegileek egindakoak dira eta 8 estatukoak.

**Arriaga Antzokian inaugurazio-ekitaldiaren amaieran proiektatuko diren zazpi euskal produkzioak hauek dira:**

- **Ehiza / Hunting - Animación** - Hauazkena Taldea - 5' - 2020
- **Hemen, Gaur, Berriz / Here, Today, Again - Documental** - Aitor Gametxo - 9' - 2020
- **Homeless Home - Animación** - Alberto Vázquez - 15' - 2020
- **Maite - Ficción** - Xabier Larrazabal - 13' - 2020
- **Polvo Somos - Ficción** - Estibaliz Urresola Solaguren - 29' - 2020
- **Quebrantos / Breaches - Documental** - Koldo Almandoz & Maria Elorza - 8' - 2020
- **Zerua Blu - Documental** - Lur Olaizola - 16' - 2020

**Estatuko zinemaren atalean, zortzi film hauek aurkeztuko dira:**

- **A Cambio De Tu Vida / In Spite Of Ourselves - Documental** - Olatz Ovejero, Clara López, Aurora Báez eta Sebastián Ramírez - 21' - 2020
- **Daucus Carota - Ficción** - Carla Linares - 15' - 2019
- **Derivas / Drifts - Documental** - Nayra Sanz Fuentes - 19' - 2020
- **Eu Más / Me More - Documental** - Ángel Montero - 15' - 2020
- **Monte Bravo / Woodland - Ficción** - Noelia María Muiño González - 14' - 2020
- **Naturaleza Muerta / Still Life - Documental** - Carolina Astudillo - 6' - 2020
- **Xiao Qiang Had A Daydream - Ficción** - Xisi Sofia Ye Chen - 17' - 2019
- **Yo / Me - Animación** - Begoña Arostegui - 13' - 2020

Azerbaijan, Koreako Errepublika, Vietnam eta Iran bezalako herrialdeak ere nazioarteko lehiaketan sartuko dira.

Parte-hartze handia eta askotarikoa, lehiaketak bere generoan duen nazioarteko dimentsioa egiaztatzen duena. Nabarmenezkoa da, gainera, lehiaketan parte hartuko duten filmetatik erdiak baino gehiago estatuko estreinaldiak dira.

**Nazioarteko lehiaketa-maila honekin, ZINEBIk bere nortasunaren ezaugarri nagusietako bati eusten dio, film laburrari. 1974an Film Ekoizleen Elkarte**

Nazioarteko Federazioak (FIAPF) nazioarteko lehiaketa kategoría goreneko jaialdi gisa aintzatetsi zuenetik, bost kontinenteetako zuzendari gazteen sormena eta talentua sustatzen jarraitzen du, formatu horretako hautaketaren bitartez. Horrez gain, Hollywoodeko Akademiak Oscar Sarien kalifikatzaile gisa hartzen du ZINEBI, sariketa ofizialeko film laburren artean, eta BAFTA Sarietarako eta Goya Sarietarako jaialdi kalifikatzaile ere bada.

### **ZINEBI 62REN PALMARESA**

Azaroaren 20an jakitera emango den ZINEBIren palmaresa sari hauek osatuko dute: Bilboko Zinemaldiaren Sari Nagusiak (7.000 euro), Euskal Zinearen Sari Nagusiak (6.000 euro), Espainiar Zinearen Sari Nagusiak (6.000 euro), fikzio, animazio eta dokumental kategorietako Mikeldiek (5.000 euro), Ikus-entzuleen ETB Sariak (3.000 euro), SGAE-Gidoi onenaren sariak (3.000 euro), FAS Zineklubaren Sariak (2.000 euro) eta UNICEF saria (zuzkidura ekonomikorik gabea).

**Lehiaketarako Sekzio ofizialeko sariak NAZIOARTEKO EPAIMAHAIK erabakiko ditu. Aurten, epaimahaiko kideak hauek izango dira: Anette Dujisin, Veneziako Nazioarteko Jaialdian programatzailea; Eugenia Mumenthaler, ekoizlea eta Alina Filmeko sortzailea; Izibene Oñederra, artisa-animaziozko filmen ekoizle eta zuzendaria; Daniel Ribas, ikertzailea, programatzailea eta zine-idazlea; eta Txani Rodríguez, kazetaria, gidoilaria eta idazlea.**

**ZINEBI 62an ere izango da opera prima film luzei buruzko nazioarteko lehiaketaren bosgarren edizioa: ZINEBI FIRST FILM (ZIFF).** Aurreko urteetan bezala, bederatzi film luze estreinatuko dira Estatuan, **eta 12.000 euroko ZINEBI FIRST FILM saria** lortzeko lehiatuko dira. Sari horren bitartez, ZINEBIk bide-laguntza eskaini nahi die film laburrean hasi eta film luzeetarako jauzia egin duten zine zuzendarien belaunaldi berriei. Aurten, jatorri ugaritako lanak hautatu dira, hala nola, Ukraina, Lituania, Portugal, Belgika, Estatu Batuak, Kanada, Erresuma Batua, Kroazia, Txina eta Frantziakoak.

ZINEBI First Filmeko hautaketan, Ana Rocha de Sousako portugaldarraren *Listen* film luzea nabarmendu behar da, Veneziako Zinemaldiaren azken edizioan Opera Prima Onenaren Etorkizuneko Urrezko Lehoia irabazi zuena, *Bad Roads* ekoizpen ukraziarrak, Venezian ere saritua, eta *The earth is blue as an orange* Sundance-n saritua.

**ZINEBI FIRST FILM SARIA ERABAKITZEKO ARDURA DUEN NAZIOARTEKO EPAIMAHAIK honako hauek osatuko dute: Carolina Cappak, Filmaren zainketan espezializatutako ikus-entzunezko artxibozaina eta ikus-entzunezko baliabideetako irakaslea; Charlotte Serrandek, zinemagilea eta La Roche-sur-Yon Nazioarteko Zinemaldiko zuzendari artistikoak (Frantzia); eta Diana Toucedok, zinemagilea, muntatzailea eta irakaslea.**

### **ATAL PARALELOAK**

**Aurten ere, ZINEBIk erreferente izaten jarraitzen du mundu osoan ekoiztako dokumentalen panoraman. Hori dela eta, saio paraleloen baitan, atsegin handiz**

aurkeztuko ditu 2020an ikusi ahal izan diren film luze dokumental onenetariko batzuk. Zortzigarren urtez **BEAUTIFUL DOCS – MUNDUKO FILM LUZE DOKUMENTALEN PANORAMA** izeneko zikloa aurkeztuko da. Sekzioa osatzen duten 9 dokumentaletatik, zazpi herrialdeetakoak. 7 ez dira gaur arte estreinatu Estatuan. Beautiful Docs sekzioan nazioarteko ospea duten zinemagileen azken lanak azpimarratzekoak dira. **Saila osatzen duten 9 film luze dokumentalen artean hainbat zinemagile ospetsuen lan berrien estatu mailako estreinaldiak daude: Ulrike Ottinger, Frederick Wiseman eta Jia Zhang-Ke zuzendarien azken lanak, besteak beste.**

Beste atal paralelo batzuetan, eta aurreko edizioetan egin den bezala, ZINEBI 62k arreta berezia eskainiko die Euskadiko produktorik berrienei. **BERTOKO BEGIRADAK - MIRADAS DESDE EUSKADI** saila sortu berri diren 22 film laburrek - Horietatik 18 CINECLUB FAS saria eskuratzeko lehiatuko dira, 2.000 euro. eta 7 film luze osatuko dute aurtengoan. Honako estreinaldi hauek nabarmentzen dira, besteak beste: **Josu Rekalderen *Esther Ferrer Hilos de tiempo lana***, diziplina arteko euskal artistari buruzkoa; ZINEBIren 61. edizioan Espainiako Zinearen Sari Handia irabazi zuen **Paula Iglesiasek eta Marta Gómezek zuzendutako *Fabricando mujeres 2.0***. Sail honetan eskainiko dira, baita, **Pablo Maquedaren *Dear Werner (Walking On Cinema)*** dokumentalaren aurre-estreinaldia; **Javier Rebollok zuzendutako *De los ojos adentro*** lanaren proiektzioa (Ohorezko Mikeldia jasoko duen Maria Eugenia Salaverriren ekoizpen eta gidioia duena); eta **Josep Morell eta Jordi Vilarrek zuzendutako *Ernest Lluch, libre y atrevido*** lanaren aurkezpena Bilbon.

**Jaialdiak, aurten bereziki nabarmendu nahi ditu film laburrak, egungo zine arloko zuzendari interesgarrienetako asko elkartzten baitira genero horren inguruan. Jonas Mekasen omenez sortu den GLIMPSES - DISTIRAK izeneko sailaren harira izango da hori; izan ere, Jonas Mekasek normaltasun osoz uztartu izan zituen beti hiru edo bost orduko film luzeak eta film labur erako apunteak. Aitzakia horrekin bildu ditugu, besteak beste, Luca Guadagnino italiarraren, Jafar Panahi iraniarraren, Guy Maddin kanadarraren, Alice Rohrwacher italiarraren, JR frantsesaren eta Sergei Loznitsa bielorrusiarraren azken film laburrak, guztiak 2020an estreinatutakoak.**

### **EMANALDI BEREZIAK**

Emanaldi Bereziek osatzen dute programazioa. Aurten, ZINEBIren 2010eko Ohorezko Mikeldia jaso zuen **LUIS DE PABLO** konpositore bilbotarra omenduko da berriro ere, Veneziako biurtekoan musika arloko Ohorezko Urrezko Lehoia jaso berri duena; **ZINEMA\_ILEGALA** programaren hamargarren urteurrena ere ospatuko da (Solokoetxe kaleko egoitzatik **Bulegoa z/b** arte eta jakintza arloko bulegoaren ekimena).

Zinerik ezezagunarekin zita egiten da ekimen honetan: norbaitek film bat proposatzen du (ikus-entzunezko edozein dokumentu, nork bere lana izan ezik), filma erakutsi baino lehen testuingurua aztertzen da eta, ondoren, sutsuki eztabaidatzen da haren inguruan. Ekimenaren hamargarren urteurrenaren harira, **Jugoslavia, kako je ideologija pokretala naše kolektivno telo / Yugoslavia, How Ideology Moved Our Collective Body** (2013) filma proposatu da oraingoan, **Marta Popivoda ZINEMA\_ILEGALA**

**programaren fundatzaileak zuzendutakoa. Zuzendaria Bulegoa z/b gunearen fundatzaileetako batekin, Isabel de Naveránek, arituko da solasean Bilboko Arte Ederren Museoan.**

### **ZINEBI NETWORKING**

**Berriro ere, profesionalen topaleku izango da jaialdia, ZINEBI NETWORKING zinema dokumentalaren hirugarren foro profesionalaren esparruan.** Euskal Produktoreen Elkarteak (EPE-APV) eta ZINEBIk antolatuta, eta Euskal Telebistaren (ETB), Europa Creativa MEDIA Desk Euskadi bulegoaren eta Zineuskadiren laguntzaz, hirugarren urtez ospatuko da ikus-entzunezko industriari eskainitako saila, **Zinebi Networking-Dokumentalen Sorgunea: Bilboko Zine Dokumentalari Buruzko III. Foro Profesionala** Bilbon, Bizkaian eta Euskal Herrian ikus-entzunezko produkzioa sustatzeko helburuz. Euskal Produktoreen Elkarteak (EPE-APV), Euskal Telebistak (ETB), Europa Creativa Desk MEDIA Euskadi bulegoak eta Zineuskadik babesten dute tokiko talentua sustatzean zentratutako topagune hau. **Zortzi lan aukeratu dira foroan parte hartzeko.**

**Proiektu dokumental irabazlea amaierako galan jakinaraziko da eta 10.000 euroko saria emango zaio.** Aurten, foro honen helburua da dinamizazioa bultzatzea eta, bereziki COVID-19 pandemiak markatutako edizio honetan, gure industria sektorea biziberritzea. Hartara, bertoko zinemagileei ikus-entzunezko sektorean diharduten profesional eta adituekin harremanetan jartzeko aukera eskaini nahi zaie, beren proiektu dokumentalak arrakastaz garatzeko aholkularitza jaso ahal izan dezaten.

**Testuinguru horretan kokatzen da (H)emen–Her(e)-ren web berriaren eta datu-basearen aurkezpena.** Aitzindaria izan zen (H)emen-elkartea 2016. urtean ikus-entzunezkoen eta arte eszenikoen munduko emakume profesionalen on line datu-basea sortzen Europan. ZINEBIren 62. edizioa aukera ezin hobea da ikus-entzunezko sektoreko emakumeak eta haien lanak ikusarazteko eta haiei laguntzeko, eta aukera ematen du euskal zuzendariak zinemako esperientziaz eta etorkizun hurbilean dituzten erronkez gogoeta egin dezaten.

### **EDIZIO HIBRIDOA**

**ZINEBIren 62. edizioa hibridoa izango da; hortaz, COVID-19 pandemiaren ondorioz, filmak zine-aretoetan erakusteaz gain -beti egin dugun bezala-zenbait proiektio eta jarduera online egingo dira.** ZINEBIk, hortaz, ahalegin guztiak egingo ditu jaialdia segurua izan dadin berau posible egiten duten pertsona guztientzat; ikusleentzat, gonbidatuentzat, komunikabideentzat, langileentzat zein enpresa hornitzaileentzat. Hortaz, film ugari eta askotarikoak aurkeztu eta erakutsi ahal izango dira: mantendu egingo da -osasun baldintzek hartarako aukera ematen badute- ahalik eta film gehien aurrez aurre proiektatzeko asmoa. Baina, era berean, online erakustaldia ere egingo da, [Filmin](#) eta [FESTHOME](#) plataformen bitartez (Beautiful Docs saileko 8 film luzeak eta ZIFF-ZINEBI First Film saileko 9 parte-hartzaileak lehendabizikoan; eta Sail Ofiziala - Film Laburren Nazioarteko Lehiaketa bigarrean).

### **EGOITZAK ETA SARRERAK**

**Jaialdiak aurten ere baditu egoitza ezberdinak: Arriaga Antzokia, Gólem - Alhóndiga Zinemak, Azkuna Zentroko Auditorioa eta Arte Ederren Museoa.** Azkuna Zentroko Auditorioko eta Gólem – Alhóndiga Zinemetako proiektioetarako, banakako sarrerak (4,50 euro) eta 10 saioko bonuak (35 euro) erosi ahal izango dira azaroaren 1etik aurrera, Gólemeko leihatiletan. Arte Ederren Museoan egingo diren ekitaldietarako sarrerak 3,50 euro kostatuko dira.

ZINEBIk bonu bereziak aterako ditu 20 € honako kolektibo hauentzat: erretiratuak (eta 60 urtetik gorakoak), langabeak eta ikasleak (eta 26 urtetik beherakoak). Inaugurazio eta itxiera galetarako tiketak eta azaroaren 21ean Arriaga Antzokian izango den Palmaresa errepikapenerako tiketak 6 eurokoak izango dira.

### **#BILBAOUDAZKENA2020**

Urrian eta azaroan hiriko kultur planak dituen [#BilbaoUdazkena2020](#) ekimenaren barruan kokatzen da programa hau. Bilboko Udalak kultura-sektorearen aldeko apustua egin du, [COVID-19](#) krisiak gehien eragiten duenetako bat dela baitaki. [#BilbaoUdazkena2020](#) programazioak zorrotz jarraituko die osasun-agintariek ezarritako protokoloei.

### **SARE SOZIALAK:**

- Bilbao Udala: [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- Bilbao Kultura: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- ZINEBI [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)

### **#ZINEBI62**

[zinebi.eus](http://zinebi.eus)

**#BilbaoUdazkena2020**

[www.bilbaokultura.eus](http://www.bilbaokultura.eus)

**EL FESTIVAL INTERNACIONAL DE CINE DOCUMENTAL Y CORTOMETRAJE DE BILBAO-ZINEBI ABRIRÁ EL VIERNES 13 DE NOVIEMBRE SU 62ª EDICIÓN EN EL TEATRO ARRIAGA**

- **121 películas de 36 países participarán en las diferentes secciones de esta edición de ZINEBI, de las cuales 89 son cortometrajes, 5 son mediometrajes y 27 son largometrajes.**
- **La Sección Oficial - Concurso Internacional de Cortometraje cuenta con 60 películas a concurso, que optarán, entre otros, al Gran Premio del Festival y a los Mikeldis a la mejor ficción, animación y al mejor documental.**
- **ZINEBI reconoce con sus premios honoríficos Mikeldi de Honor a los belgas Jean-Pierre y Luc Dardenne y a las vascas Ana Murugarren y María Eugenia Salaverri.**
- **Dentro de la competencia internacional ZINEBI First Film (ZIFF), dedicada a las opera prima más sugerentes y arriesgadas del circuito y dotado con un premio de 12.000 euros, se han seleccionado 9 largometrajes, todos ellos estrenos en el Estado.**
- **La sección no competitiva Beautiful Docs - Panorama de Documentales del Mundo ofrecerá la posibilidad de ver 9 producciones recientes, procedentes de 7 países. De ellas, 7 no se han exhibido hasta la fecha en el Estado.**
- **La edición 62 de ZINEBI será híbrida por lo que, además de exhibir las películas en las salas de cine, algunas proyecciones y actividades se celebrarán online.**

*(Bilbao, 21 de octubre de 2020).*- El [Festival Internacional de Cine Documental y Cortometraje de Bilbao - ZINEBI 62](#), organizado por el Ayuntamiento de Bilbao, **dará comienzo en el Teatro Arriaga el próximo viernes 13 de noviembre y concluirá el viernes 20.** La programación de esta edición 62 el festival se ha presentado esta mañana en una rueda de prensa en la que han participado el concejal de Cultura y Gobernanza del Ayuntamiento de Bilbao **Gonzalo Olabarria**, el Consejero de Cultura y Política Lingüística y Portavoz del Gobierno Vasco, **Bingen Zupiria**, y la directora de ZINEBI, **Vanesa Fernández**.

**En ZINEBI 62 participarán un total de 121 títulos procedentes de 36 países y de ellos, 89 son cortometrajes, 5 son mediometrajes y 27 largometrajes.** El Festival se constituye en cuatro secciones principales. La primera, la Sección Oficial - Concurso Internacional, que está dedicada al trabajo de nuevos realizadores y realizadoras, se divide en dos competencias: Concurso Internacional de Cortometraje y la Competencia Internacional ZIFF - ZINEBI FIRST FILM que, como su nombre indica, está dedicada al primer trabajo de nuevos realizadores y realizadoras; la sección Beautiful Docs, muestra no competitiva que refleja lo que sucede en el panorama internacional del documental; y la sección compuesta por cortometrajes y largometrajes producidos en Euskadi Bertoko Begiradak - Miradas Desde Euskadi, dirigida a las productoras, cineastas, técnicos y profesionales de la industria audiovisual del País Vasco. **Entre los títulos que se**



**mostrarán en el festival más del 50% de las películas programadas están dirigidos por mujeres y más del 50% de la programación son estrenos estatales.**

### **PREMIOS MIKELDI DE HONOR**

En este 2020, ZINEBI reconoce con sus premios honoríficos Mikeldi de Honor la trayectoria y la dimensión artística de algunos de los nombres más relevantes del cine contemporáneo internacional. El festival tendrá el honor de otorgar estos premios a dos grandes cineastas que han desarrollado su carrera cinematográfica partiendo del documental: los belgas Jean-Pierre y Luc Dardenne. Ambos reconocidos por crítica y público de todo el mundo por su obra de ficción, pertenecen al restringido club de cineastas que han logrado obtener dos Palmas de Oro del Festival de Cannes (junto a Francis Ford Coppola, Ken Loach, Bille August, Shohei Imamura y Michael Haneke). **El próximo 14 de noviembre ZINEBI estrenará en el Estado la versión restaurada de uno de sus primeros largometrajes documentales, *Le chant du rossignol* (El canto del ruiseñor, 1977).**

**Además, el festival reconoce este año el trabajo de dos pioneras en el ámbito cinematográfico vizcaino desde las décadas de los 80 y los 90: el de la directora, guionista y montadora Ana Murugarren, y el de la escritora, guionista y productora María Eugenia Salaverri, en una época en la que la presencia de las mujeres en las producciones locales solía quedar reducida a papeles secundarios.**

**Murugarren** fue la encargada de montar títulos clave del cine vasco de finales de los ochenta, como el cortometraje de Pablo Berger *Mamá* (1988), o los primeros trabajos dirigidos por Enrique Urbizu: *Tu novia está loca* (1988) o *Todo por la pasta* (1991). También montó *Sálvate si puedes* (Joaquín Trincado, 1991) y, con su paso a la dirección, se acercó al documental *Esta no es la vida privada de Javier Krahe* (2005) y a la ficción: *La dama guerrera* (2012, para televisión), *Tres mentiras* (2014), *La higuera de los bastardos* (2017) o *El precio de la libertad* (2018, para televisión), con Quim Gutiérrez, sobre la vida de Mario Onaindia.

Por su parte, **Salaverri**, además de columnista en varios medios de comunicación, ha desarrollado su carrera cinematográfica como productora y guionista, colaborando con el director Javier Rebollo en *Calor... y celos* (1996), *Marujas asesinas* (2001), *Locos por el sexo* (2006) y *Txarriboda* (cod. Alvar Gordejuela, 2015). Además, ha sido productora ejecutiva de la película para televisión *El extraño anfitrión* (2012) y de *Alaba zintzoa* (2013). Como escritora, ha publicado colecciones de relatos como *Un tango para tres hermanas* (1997) o *¿Por qué te ríes?* (2004) y libros de poemas como *Retrato de un pájaro* (1978).

### **COMPETENCIA INTERNACIONAL**

**Del total de los 3.525 CORTOMETRAJES INSCRITOS, procedentes de 101 países, el Comité de Selección ha elegido 60, en representación de 30 países, para participar en la SECCIÓN OFICIAL-CONCURSO INTERNACIONAL. Cincuenta y nueve de ellos**

**son estrenos en el Estado.** De ellos, dos son estrenos conjuntos con la 58ª edición del Festival Internacional de Cine de Gijón / Xixón: **A Cambio De Tu Vida / In Spite Of Ourselves**, documental de **Olatz Ovejero, Clara López, Aurora Báez y Sebastián Ramírez**; y **Zerua Blu**, documental de **Lur Olaizola**.

Estos títulos competirán, entre otros, por el **GRAN PREMIO DEL FESTIVAL**, dotado con 7.000 euros, y el **PREMIO MIKELDI** en cada uno de los tres géneros establecidos, dotado cada uno con 5.000 euros por el certamen: **ficción** (21 títulos), **documental** (20 títulos) y **animación** (19 títulos). Entre las películas seleccionadas a concurso destacan siete firmadas por realizadoras y realizadores de Euskadi, así como ocho títulos estatales.

**Las siete producciones vascas que se proyectarán al término de la gala inaugural en el Teatro Arriaga son:**

- **Ehiza / Hunting - Animación** - Hauazkena Taldea - 5' - 2020
- **Hemen, Gaur, Berriz / Here, Today, Again - Documental** - Aitor Gametxo - 9' - 2020
- **Homeless Home - Animación** - Alberto Vázquez - 15' - 2020
- **Maite - Ficción** - Xabier Larrazabal - 13' - 2020
- **Polvo Somos - Ficción** - Estibaliz Urresola Solaguren - 29' - 2020
- **Quebrantos / Breaches - Documental** - Koldo Almandoz & Maria Elorza - 8' - 2020
- **Zerua Blu - Documental** - Lur Olaizola - 16' - 2020

**En el apartado de cine estatal concurrirán las siguientes ocho películas:**

- **A Cambio De Tu Vida / In Spite Of Ourselves - Documental** - Olatz Ovejero, Clara López, Aurora Báez y Sebastián Ramírez - 21' - 2020
- **Daucus Carota - Ficción** - Carla Linares - 15' - 2019
- **Derivas / Drifts - Documental** - Nayra Sanz Fuentes - 19' - 2020
- **Eu Más / Me More - Documental** - Ángel Montero - 15' - 2020
- **Monte Bravo / Woodland - Ficción** - Noelia María Muiño González - 14' - 2020
- **Naturaleza Muerta / Still Life - Documental** - Carolina Astudillo - 6' - 2020
- **Xiao Qiang Had A Daydream - Ficción** - Xisi Sofia Ye Chen - 17' - 2019
- **Yo / Me - Animación** - Begonia Arostegui - 13' - 2020

Se incorporan también al concurso internacional países como Azerbaiyán, República de Corea, Vietnam e Irán.

La organización de ZINEBI valora que se trata de una participación elevada y variada que acredita un año más la dimensión internacional de este certamen en su género. Además, destaca que más de la mitad de los títulos a concurso son estrenos estatales.

**Con este nivel de competición internacional, ZINEBI mantiene una de sus principales señas de identidad: el cortometraje.** Desde que en 1974 alcanzara el reconocimiento por parte de la Federación Internacional de Asociaciones de Productores

de Films (FIAPF) como festival de la máxima categoría internacional competitiva, continúa impulsando la creatividad y el talento de jóvenes directores y directoras de los cinco continentes, mediante una selección en este formato. ZINEBI está acreditado además, por la Academia de Hollywood como calificador de los Oscars entre los cortometrajes del palmarés oficial y es también festival calificador para los Premios BAFTA y los Premios Goya.

## **PALMARÉS DE ZINEBI 62**

**El PALMARÉS DE ZINEBI 62, que se dará a conocer el día 20 de noviembre, está compuesto por el Gran Premio ZINEBI (7.000 euros), el Gran Premio al Mejor Cortometraje Vasco (6.000 euros), el Gran Premio al Mejor Cortometraje Español (6.000 euros), los Mikeldi en los apartados de ficción, animación y documental (5.000 euros), el Premio del Público-EiTB (3.000 euros), Premio al Mejor Guion SGAE (3.000 euros), Premio Cineclub FAS (2.000 euros) y el Premio UNICEF (sin dotación económica).**

**Los galardones de la SECCIÓN OFICIAL-CONCURSO INTERNACIONAL serán otorgados por el JURADO INTERNACIONAL, formado este año por Anette Dujisin, programadora de la Semana de la Crítica de Venecia; Eugenia Mumenthaler, productora y cofundadora de Alina Film; Izbene Oñederra, productora y directora de películas de animación artesanal; Daniel Ribas, investigador, programador y escritor de cine; y Txani Rodríguez, periodista, guionista y escritora.**

**En ZINEBI 62 también estará presente la quinta edición de su concurso internacional dedicado a largometrajes opera prima, ZINEBI FIRST FILM (ZIFF).** Como en años anteriores, serán nueve largometrajes, todos ellos estrenos en el Estado, los que competirán por lograr el premio **ZINEBI FIRST FILM**, dotado con **12.000 euros**. Con este premio, ZINEBI quiere seguir acompañando a las nuevas generaciones de cineastas que, tras sus comienzos en el cortometraje, dan el salto hacia el largometraje. Este año, las películas seleccionadas proceden de Ucrania, Lituania, Portugal, Bélgica, Estados Unidos, Reino Unido, Croacia, China y Francia.

En la selección de ZINEBI First Film destacan títulos como el largometraje *Listen* de la portuguesa Ana Rocha de Sousa, que se alzó con el León de Oro del Futuro a la Mejor Ópera Prima en la última edición del Festival de Venecia, las producciones ucrainas *Bad Roads*, también premiada en Venecia y *The earth is blue as an orange*, galardonada en Sundance.

**El JURADO INTERNACIONAL ENCARGADO DE DECIDIR EL PREMIO ZINEBI FIRST FILM** estará integrado por **Carolina Cappa**, archivista audiovisual especializada en preservación fílmica y profesora de medios audiovisuales; **Charlotte Serrand**, asesora de programación de la Quincena de Realizadores de Cannes, cineasta y directora artística del Festival Internacional de Cine de La Roche-sur-Yon (Francia); y **Diana Toucedo**, cineasta, montadora y docente.

## **SECCIONES PARALELAS**

En esta nueva edición, ZINEBI sigue siendo uno de los grandes referentes para el documental producido en todo el mundo. Por ello, dentro de sus secciones paralelas el festival presentará algunos de los mejores largometrajes documentales que se han podido ver a lo largo de 2020. Por octava edición consecutiva se incluyen en la sección **BEAUTIFUL DOCS - PANORAMA DE DOCUMENTALES DEL MUNDO**, una selección de nueve documentales de producción reciente, procedentes de 7 países; de ellos, 7 no se han exhibido hasta la fecha en el Estado. En esta sección, destacan los últimos trabajos de cineastas consagrados y de prestigio internacional. **Entre los 9 largometrajes documentales que integran la sección encontramos los estrenos estatales de las películas más recientes de reconocidos cineastas como Ulrike Ottinger, Frederick Wiseman o Jia Zhang-Ke.**

En otras secciones paralelas y, tal como se ha hecho en ediciones anteriores, ZINEBI 62 prestará especial atención a las producciones vascas más recientes dentro de la sección **BERTOKO BEGIRADAK. MIRADAS DESDE EUSKADI**. Este año está compuesta por **22 cortometrajes, -18 de los cuales optarán al PREMIO CINECLUB FAS, dotado con 2.000 euros- y 7 largometrajes de producción reciente**. Destacan los estrenos *Esther Ferrer. Hilos de tiempo*, de Josu Rekalde, sobre la artista interdisciplinar vasca del mismo nombre; y *Fabricando mujeres 2.0*, dirigida por Marta Gómez y la ganadora del Gran Premio del Cine Español en ZINEBI 61, Paula Iglesias. En esta sección también tendrá lugar el **preestreno de documentales Dear Werner (Walking On Cinema), de Pablo Maqueda**; la proyección de *De los ojos adentro*, dirigida por Javier Rebollo, con producción y guion de la Mikeldi de Honor María Eugenia Salaverri; y la **presentación en Bilbao de Ernest Lluch, libre y atrevido**, una coproducción vasca dirigida por Josep Morell y Jordi Vilar.

**ZINEBI 62 pondrá énfasis en el cortometraje como punto de encuentro de algunos de los y las cineastas más interesantes del cine actual.** Será con motivo de la sesión titulada **GLIMPSES - DISTIRAK**, en homenaje al recordado Jonas Mekas, cuya obra concilió siempre con absoluta normalidad largometrajes de tres o cinco horas de duración y breves apuntes en forma de cortometraje. Bajo esta invocación se han reunido los últimos cortometrajes del italiano Luca Guadagnino, el iraní Jafar Panahi, el canadiense Guy Maddin, la italiana Alice Rohrwacher, el francés JR o el bielorruso Sergei Loznitsa y el británico Jonathan Glazer, todos ellos estrenados durante 2020.

## **PROYECCIONES ESPECIALES**

Completan la programación del festival las **SESIONES ESPECIALES**, dedicadas este año a homenajear nuevamente al Mikeldi de Honor de ZINEBI 2010, el compositor bilbaino **LUIS DE PABLO**, reciente León de Oro Honorífico de Música en la Bienal de Venecia de este año, presentando el cortometraje sobre su figura *Déjame hablar*, dirigido por Samuel Alarcón; y al décimo aniversario del programa **CINE\_ILLEGAL**, que promueve

y celebra en su sede de la calle Solokoetxe la oficina de arte y conocimiento **Bulegoa z/b**.

El funcionamiento de esta cita regular con el cine menos conocido es sencillo: alguien propone una película (cualquier documento audiovisual, a excepción del trabajo propio), se contextualiza esa película antes de su exhibición y, posteriormente, se conversa “con efervescencia” acerca del mismo. Con motivo del décimo aniversario de la iniciativa, la película propuesta es ***Jugoslavija, kako je ideologija pokretala naše kolektivno telo / Yugoslavia, How Ideology Moved Our Collective Body*** (2013), dirigida por la fundadora de Cine\_Illegal, **Marta Popivoda**, que conversará con una de las fundadoras de **Bulegoa z/b**, **Isabel de Naverán**, en el Museo de Bellas Artes.

### **ZINEBI NETWORKING**

**De nuevo, el festival servirá de lugar de encuentro para profesionales en el marco del tercer foro profesional de cine documental ZINEBI NETWORKING.** Organizado por la Asociación de Productores Vascos (EPE-APV) y ZINEBI, con la colaboración de Euskal Telebista (ETB), Europa Creativa MEDIA Desk Euskadi y Zineuskadi, tendrá lugar por tercer año consecutivo la sección dedicada a la industria audiovisual vasca **Zinebi Networking: III Foro Profesional De Cine Documental De Bilbao - Dokumentalen Sorgunea**, a través del cual busca impulsar la producción audiovisual en Bilbao, Bizkaia y el Euskadi. Este punto de encuentro para el talento local cuenta con el apoyo de la Asociación de Productores Vascos (EPE-APV), Euskal Telebista (ETB), Europa Creativa MEDIA Desk Euskadi y Zineuskadi. **Se han seleccionado ocho proyectos para participar en el foro.**

**El proyecto documental ganador se dará a conocer en la gala de clausura y se le hará entrega de un premio dotado con 10.000 euros.** En 2020, este foro busca favorecer la dinamización de un año marcado por la pandemia de la COVID-19, poniendo el foco en la revitalización del tejido industrial, ofreciendo al talento local la oportunidad de ponerse en contacto con profesionales y expertos que les asesoren sobre la forma de desarrollar con éxito sus proyectos documentales.

**Dentro de este contexto se enmarca la presentación de la nueva web y base de datos de (H)emen | Her(e)**, que en 2016 fue pionera en la creación de una base de datos online de mujeres profesionales del mundo audiovisual y de las artes escénicas a nivel europeo. La celebración de la 62ª edición de ZINEBI constituye una ocasión inmejorable para visibilizar y apoyar a las mujeres del sector audiovisual y sus obras, brindando la oportunidad de que directoras vascas reflexionen sobre su experiencia en el cine y los retos que se plantean en el futuro próximo.

### **EDICIÓN HÍBRIDA**

**La edición 62 de ZINEBI será una edición híbrida en la que, además de exhibir las películas en las salas de cine –como siempre se ha hecho–, algunas proyecciones y actividades se celebrarán online.**

El principal objetivo para ZINEBI este año ha sido la configuración de un festival seguro para el público, las y los invitados, los medios de comunicación, las y los trabajadores, y las empresas proveedoras que hacen posible su celebración. Esto supondrá presentar y exhibir muchas y muy diversas películas. Se mantendrá, si las recomendaciones sanitarias de las autoridades competentes así lo permiten, la proyección de la mayor cantidad de los trabajos de manera presencial, pero también se incorporará su exhibición online a través de las plataformas [Filmin](#) para 8 largometrajes pertenecientes a la sección **BEAUTIFUL DOCS** y para los 9 participantes de **ZINEBI FIRST FILM**, y [FESTHOME](#), para los 60 cortometrajes de la Sección Oficial – Concurso Internacional de Cortometraje.

### **SEDES Y ENTRADAS**

**El festival cuenta una año más con diferentes sedes: Teatro Arriaga, Cines Golem - Alhóndiga y Auditorio de Azkuna Zentroa y Museo de Bellas Artes.** Para las proyecciones del Auditorio de Azkuna Zentroa y de los Cines Gólem – Alhóndiga se podrán adquirir entradas individuales (4,50 euros) y bonos de 10 sesiones (35 euros) a partir del 1 de noviembre, en las taquillas de Gólem. Las entradas para los actos que se celebrarán en el Museo de Bellas Artes costarán 3,50 euros.

ZINEBI emitirá unos bonos especiales para personas jubiladas y mayores de 60 años, así como para personas en situación de desempleo y estudiantes y jóvenes menores de 26 años al precio de 20 euros.

Los tickets para las galas de inauguración y clausura, así como para la repetición del Palmarés que se celebrará el 21 de noviembre en el Teatro Arriaga, tendrán un precio de 6 euros.

### **#BILBAOUDAZKENA2020**

**Este programa se enmarca dentro de la iniciativa [#BilbaoUdazkena2020](#) con planes culturales en la Villa en los meses de octubre y noviembre.** Es una apuesta del Ayuntamiento de Bilbao por el sector cultural, consciente de que éste es uno de los más afectados por la actual crisis del [COVID-19](#).

Toda la programación de [#BilbaoUdazkena2020](#) seguirá estrictamente los protocolos marcados por las autoridades sanitarias.

### **REDES SOCIALES:**

- Bilbao Udala: [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- Bilbao Kultura: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- ZINEBI [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)

**#ZINEBI62**

[zinebi.eus](http://zinebi.eus)

**#BilbaoUdazkena2020**  
[www.bilbaokultura.eus](http://www.bilbaokultura.eus)